

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Estatuturik gabeko herria

VIENA, 1815. XVIII. mendeko gerra amaigabeen ondoren, Europako mapa berriro marraztu zuten Vienako Kongresuan bildutakoek. Prusia eta Holandaren arteko negoziazioa ez zen erraza izan. Muga berria nahiko azkar adosten ari baziren ere, Moresneteko eskualdera iristean liskarrak hasi ziren. Bertan zegoen Vieille Montagneko zink-meatzea eta biek nahi zuten, baina gatazka ez gordintzeko, azkenean, ez zen inorentzat izan. Moresnet egun Alemaniak, Belgikak eta Herbehereek bat egiten duten puntutik zazpi kilometrora zegoen. 3,5 kilometro koadroko azalera besterik ez zuen, baina mende luze batez lurralde neutroa izan zen, inolako jaberik edo jurisdikzio zehatzik gabekoa, Europaren erdi-erdian baina Europako estatuen mapatik kanpo.

Meatzea, hasieran, bi erresumetako ordezkariak kudeatu zuten. Berehala, ordea, lurraldean gobernu txiki modukoa sortu zen. Zergak biltzea eta legeak betearaztea ezinezkoa zen, ez zergarik eta ez legerik ez zegoelako. Gehien komeni zitzaiena aukeratzen zuten. Herbehereetako arau bat hartzen zuten batean, Prusiako lege bat bestean, biak baztertu eta euren bideari heltzen zioten hurrengoan... Administrazio arazo handiak zekartzan egoera hark, baina baita abantaila ekonomikoak ere. Inportazio-tarifarik ezin zen aplikatu eta Moresnet paradisu fiskal bihurtu zen. Bertako 3.000 biztanleak azkar aberastu ziren.

Baina Vienako Kongresuko erabakia aplikatu eta 70 urtera, Vieille Montagneko meatzeko erre-serba guztiak agortu egin ziren. Bertakoek ez zioten pagotxari muzin egin nahi eta alternatiba berehala jarri zuten martxan: kasinoak, putetxeak eta ginebra merkea egiten zuten destilategiak



Ezkerrean goian, Vieille Montagneko meatzea. Azpian, Moresneteko 1905eko mapa. Lerro hauen gainean, Moresneteko txanpona; estatuburu propiorik ezean, txanponaren buruak bi aurpegi ditu: alde batean Prusiako erregea eta bestean Herbehereetako.

zabaldu zituzten, eta edukiak batere kontrolatzen ez zituen posta zerbitzu askea antolatu zuten.

Lehen Mundu Gerrarekin batera, Moresnetek lurralde neutrala izateari utzi zion. Akabo prostituzioaren, jokoaren, alkohol merkearen, kontrabandoaren eta espioitzaren paradisu. Gerraren hasieran Alemaniak hartu zuen lur zati neutrala, baina Versalleseko Itunak Belgikari eman zion. Bigarren Mundu Gerran, 1944an, berriro Alemaniak okupatu zuen; hala ere, gerra amaitu eta, atzera, Belgikarentzat izan zen. Baina ordurako Moresnetek ez zuen ia biztanlerik. Lehengo abantailak amaituta eta 40 urtetako gorabeherak medio, ia denek inguruko "ohiko" estatuetara alde egin zuten.

Estatu propiorik gabeko herriak zer diren ederki dakigu, baina horra hor inolako estatuturik gabeko herri baten historia. ■

ARRASTOAK



HISTORY FACTORY du izena historia negozio bihur daitekeela frogatu duen enpresa estatubatuarra. Batetik, konpainien artxi-boak kudeatzen ditu. Bestetik, enpresa batek behar dituen historiarekin zerikusia duten materialak eta ospakizunak prestatzen ditu. Hainbat mendeurren ospatzeko laguntza eskaintzeaz gain, urtebetetze berriagoekin ere aritu da: *Playboy* aldizkariaren 50. urteu-

rrera eta Microsoften Word programaren 10.a. Lan estrategikoa ere egiten dute. Esaterako, Tabasco konpainiak –izen bereko saltsa ezaguna merkaturatzen duena– 125 urte bete ditu, eta bere publizitate agentziak azken mende eta laurdeneko artearen historian oinarritutako azterketa eskatu zien History Factorykoei urteurrenaren kanpaina bideratzeko.